DEUSTUKO IKASTOLA
GURASO
ELKARTEA

Iruña kalea, 2 bis
944 280 126
48014 Bilbao
www.deustukoikastola.org

3. Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko Bilera Akta.

2017-2018 Ikasturtea.

Eguna: 2018ko urtarrilaren 9a (18:05etatik 20:10ra).
Nor etorri da: Vicky, Inma, Karol, Unai, Igor, Mikeldi, Olatz.
Ez da etorri: Jon, Naia.

Haurtzaindegiko zorra kobratzea:

Gehienek ordaindu dute.

Ordutegi aldaketa:

Aste honetako azalpen bileran Unai (Guraso Elkartea) eta Iker (informatika) izango dira Zuzendaritzak horrela eskatuta.

Bi guraso egon behar dira Junta Elektoralean. Delegatu Saretik pasatuko dugu deialdia ea nork nahi duen. Bileran ere boluntarioak eskatuko dira. Unaiek pertsona hoien konpromisua eta betebeharrak idatziko ditu.

Jantokiko modeloa eta hornitzalea aukeratzeko prozedura:

Gonbidatua: **María Gutiérrez.**

Mariak parte hartzeko prozesutik atera diren ekarpenak jaso ditu.

Urtarrilaren 23an Batzarra deitzea erabakitzen dugu, aretoa baldin badago.

Batzarraren edukia:
• Parte hartzeko dinamikatik atera den eredua azaltzea.
• Zeharkako eredua parte-hartze prozesutik atera den alternatiba gisa planteatzea: norbaitek zuzenean planteatu nahi badu, planteatu dezala. *Bozkatu egingo da*.
• Juntak planteatzen duen kudeaketa-eredua azaltzea. *Bozkatu egingo da.*
• Lizitazio-eredua azaltzea. *Bozkatu egingo da.*

DEUSTUKO IKASTOLA
GURASO
ELKARTEA

Iruña kalea, 2 bis
944 280 126
48014 Bilbao
www.deustukoikastola.org

Guraso Elkartea zerbitzuaren kudeaketa-eredua:

• Gurasoen borondatez sortua.
• Iraunkorra denboran.
• Zerbitzuaren egungo kostuaren parametroetan.
• Lege-aginduak betez.
• Enpresa emakidadunak egunez egun emandako zerbitzua kontrolatuta izango da kanpoko zerbitzu baten bidez.
• Jantokiko Batzordeak kontrolatua eta bermatua.
• Kuotaren zati bat enpresaren ordainketarako izatea, zerbitzuaren prestazioa eta ekipamenduaren eta tresneriaren amortizazioa kontrolatzeko.

Lizitazio-eredua:

• Ordaintzeko prest gauden prezioa ezartzea eta eskaintzetan ahalik eta gehien jasotzea nahi dugun ereduan baloratzen ditugun elementuak.
• Proposamenen balorazioa: Jantokia Batzordeak, Guraso Elkartearen onarpenarekin.
• Zerbitzuaren aldia: 5 urte, bi aldeek urtero ebaluatzea. (????)

Zereginen banaketa:

• Mariak edukien laburpena egingo du.
• Vickyk aretoa eskatuko du.
• Olatzek ereduaren laburpena egingo du.
• Unaik informazioa webgunean jarriko du.
• Igorrek aholkularitza-laguntzarekin definitzen ditu lizitazioaren oinarri izango diren oinarrizko organoak: kontratuaren indarraldia, ez-betetzeen kasuan zehapen-araubidea, kontrol- eta jarraipen-erregelamenduak, ordainketa-eredua, ekipamendua eta tresneria amortizatzea, abalak, aseguruak eta enpresak aurkeztu beharko dizkigun gainerako betekizunak (TCak...), laneko eredu operatiboa.

Hizkuntza eskolaz kanpoko ekintza bezala:

Virginia Gonzálezek proposamen bat egiten du kanpoko hizkuntza (ingeleseakoak) klaseak eskolaz kanpoko ekintzetako eskaintzan sartzeko datorren kurtsoan.

Juntak uste du Guraso Elkarte bezala ezin garela akademia baten modeloan sartu eta honelako ekintza bat antolatzea oso konplexua dela kudeatzeko ditugun baliabideekin (gelak, antolakuntza sistema...), bermeko zerbitzu bat teskaintzeko.

Partehartzetik Virginiari idei hau azalduko zaio eta nahi izatekotan hurrengo Junta batera gonbidatu zaio bere argudioak eta planteamendua hobeto ezagutzeko.

DEUSTUKO IKASTOLA
GURASO
ELKARTEA

Iruña kalea, 2 bis
944 280 126
48014 Bilbao
www.deustukoikastola.org

Hurrengo bilera:

Ez da zehazten.

Guraso Elkartea
www.deustukoikastola.org